AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

957

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 8koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Juan Isasi Urdangarin jaunak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Euskara zuzendariordetzako zuzendariorde izateari utz diezaiola xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Juan Isasi Urdangarin jauna Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Euskara zuzendariordetzako zuzendariordearen lanpostutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea (lanpostua: 512006 kodea, 1 dotazioa).

Bigarrena.– Lanpostutik kentzeak 2013ko otsailaren 11tik aurrera sortuko ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen; bere aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari. Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 8a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.